

KONTROL MOZIOA

POBREZIA ENERGETIKOA EKIDITEKO BULEGOAREN FUNTZIONAMENDUA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko azaroaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko otsailaren 4an, Donostiako pentsionisten kolektiboak honako eskaera hau aurkeztu zuen erregistro bidez (199/3192): *pobrezia energetikoaren ondorioak gero eta jende gehiagok jasaten duela salatzen dugu eta udal gobernari eskatzen diogu energiaren bulego bat antolatuta dezala, pobrezia energetikoarekin lotuta dauden beharrak detektatzeko eta bideratzeko.*

Aurkeztutako dokumentuan, pentsionisten kolektiboak egiten zuten eskaera Espainiako estatuko hainbat hiritan martxan jarri zen ekimenaren antzekoa zen. Esate baterako, 2018ko azaroan Valentziako Udalak ireki zuen horrelako bulego bat, pobrezia energetikoari aurre egin ahal izateko, hiriko % 23ari eragiten zion kaltea baitzen.

Hori dela eta, 2019ko martxoko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen eta Gizarte-ekintzako delegatuak adierazi zuenez, pentsionisten kolektiboak egindako proposamena interesgarria iruditu zitzaion udal gobernari eta hurrengo enplegu sustapeneko programaren bidez forma emateko aukera aztertu behar zuten, pertsona bat kontratatuz energiaren faktura bideragarria nola egin azaltzeko hiriko familiei. Dena den, delegatuak ez zuten epe zehatzik aipatu eta martxoko udalbatzarrean onartu zen kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernari idatziz aurkeztu dezala pobrezia energetikoa ekiditeko bulegoari dagokion plana eta zerbitzua noiz irekiko duen zehaztu dezala, Alderdi Ederreko pentsionisten plataformaren eskaerari erantzunez.

Urrian Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Pobrezia eta Desberdintasunen inkestaren emaitzen arabera, 200.000 pertsonak jasango dute pobrezia energetikoaren ondorioak negu honetan (hotza, berogailua pizteko zailtasunak, argi falta eta abar). Datuen arabera, 2008tik pobrezia energetikoa % 125 hazi da EAEn.

Azaroko batzordeetan delegatua interpelatu dugunean, bulegoa abenduaren 2an irekiko dela eta OMICen kokatuko dela adierazi zuen. Zerbitzu berri honen eta gainerako departamentuen (esate baterako, Gizarte-ekintza saila) arteko koordinazioaren inguruan galdetu dugunean ez digu zehaztasunik eman eta deribazioen bidez funtzionatuko omen dutela esan digu.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztu du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Pobrezia Energetikoa Ekiditeko bulegoaren eta gainerako sailen-zerbitzuen arteko elkarlana definitzeko gida edo protokolo bat zehaztu dezala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Pobrezia Energetikoa Ekiditeko bulegoaren irekieraren berri emateko komunikazio kanpaina bat egin dezala, donostiarrek zerbitzuaren berri izan dezaten.

Donostian, 2019ko azaroaren 14a

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia